

Kokainomaniaren aurka kokaina

Hemendik aurrera kokainazaleek metodo berria izango dute koka uzten laguntzeko. Izan ere, Kaliforniako ikertzaileek txertoa asmatu dute kokari aurre egiteko eta kokainomanoak noiz-behinka droga hartuko balu ere, tratamenduak aurrera jarraituko luke.

Kokaina-kontsumitzailea droga hartu eta bere eragina garunera heltzean estimulatzen egiten da. Ikertzaileen esanetan, proteina batek dopamine-soberakina xurgatu eta nerbio-zeluletara eramaten du eta kokainak aldiz, proteinari bere lana eragotzen dio. Beraz, odolean dopamine gehiegi edukitzeak kokainomanoa estimulatzen egiten du. Ikertzaileek txertoaren eraginkortasuna egiaztatzen, arratoiei ko-

kaina-molekula erdiaren eta proteina baten nahasketan sartu zieten odolean. Nahastea ez zen animalien garunetara heldu, izan ere arratoiek antigorputzak sortu zituzten kokaina blokeatzeko. Ondorioz, txerto berriak arratoietan arrakasta izan duela adierazi dute ikertzaileek, baina kokainomanoak ez dira arratoiak eta estimulazioa sentitu ahal izateko dosi handiagoak hartuz joko duten beldur dira ikertzaileak.

Gero eta arazo larriagoa

Dementzia senila, eskizofrenia eta oro har, gaixotasun mentalak etorkizuneko gizarteetan nagusituko diren gaitzen artean sailkatzen hasiak dira. Garatuta herrialdeetan eta mende honen bukaeran, orain arte ezezagun zitzaizun ko-

puruan agertzen dira gaixotasun mentalak. Jadanik, Frantzia ospitalizatutako pertsonen %25 gaixotasun mentalaren baten eraginpean dago.


Glaukoma eta laserra

Glaukoma, hau da, begi-barneko presioa areagotzean sortzen den gaixotasuna albiste bilakatu da EEBBetan. Medikazioa eta ebaketaz landa, orain arte ez zegoen ikusmen-arazo hori konpontzeko biderik, baina dirudenez, laserrak erabiliz ebaketa-sistema berria erabili ahal izango da etorkizunean. Jadanik zenbait saio egin da gaixoekin zuzenean eta laserra eraginkorra dela ondorioztatu dute oftalmologoen.

Esan bezala, glaukomak begi-barneko presioa areagotzen du eta ikus-eremuaren murrizketa eta itsutasuna dakar. Oftalmologo estatubatuarrak glaukomaren aurka laserraren eraginkortasuna handia dela azpimarratu badute ere, gaixotasunaren nondik norakoak eta laserrak gaitz horren aurka duen ahalmena ez dira oraindik argitu.

Orain arte erabili izan diren tratamenduak eraginkorrak direla frogatu dute, baina arazoak sortzen dituztela ere ikusi da. Ohiko ebaketak ikusmena galtzeko %5eko arriskua dakar eta sendagaiek berriz, presio arteriala igo edo bronkioen uzkuradura eragin dezakete.

EEBBetan egindako saioetan, 3.500 paskaletako



Isuritako begi-barneko likidoak berezko ibilbidea egiten du eta drenaje egokiarekin begi-presioa ez da igotzen. Kanala estutzen bada ordea, likidoa ezin daiteke pasa eta horrek presioa areagotzea eragiten du. Batzuetan kristalinoak eta irisak estutzen dute pasagunea, baina beste zenbaitetan zuntz-sare konplexu batek itxiarazten du pasabidea.

presioaz egin dute lan begi-barnean eta ohizkoa 2.000 paskalekoa da. Laser bidezko tratamendua erabiliz, begi-presioa 2.400 paskaletara murriztea lortu zen. Ondorioz, tratamendu hori segurua dela eta bigarren mailako ondorioz ez duela sortzen baieztatu ahal izan da, baina ez dira epe luzerako irtenbidea dela esatera ausartu. Izan ere, tratamendu horren bidez presioa 2.400 paskaletara murriztea lortu bada ere, denboraren poderioz presioa berriro handiagotu egiten dela ikusi da. Etorkizunak baieztatu edo erabat ukatuko du teknika berri horren baliogarritasuna, baina gaur-gaurkoz adituak nahikoa itxaropenetsu ageri dira.

Proteina batek dopamine-soberakina xurgatu eta nerbio-zeluletara eramaten du eta kokainak aldiz, proteinari bere lana eragotzen dio. Horregatik, odolean dopamine gehiegi edukitzeak kokainomanoa estimulatzen egiten du.

